

hegalari gogor-gogor helduta, ez jausteko. **Sekulako** abiadura sentitu ahal du aurpegian eta gorputzean, inoiz ez da hain abiadura handian ibili. Izugarria da. **Noizean behin** Pottek Haundiri begiratzen dio, eta Haundik begiradaz erantzuten dio:

—Zer moduz hor, txiki? Ondo?

—Primeran! —esaten dio Potten begirada alaiak.

Formazioa mendebaldera doa, helmuga han dutelako. Handitasunaren erdian nabigatzen ari dira, itsasoa batzuetan **harro** eta besteetan bare dute. **Kresala** artean, goizeko lanbro artean, **behe-lainoek** inguratuta, urazpiko iluntasunean, urazalean eguzkiak argituta. Mundu **hezearen** biztanleak dira baleak.

Bitartean, beste mundu bateko biztanleak, gizakiak, haien **peskizan** doaz, baleen bila doaz **jo eta ke**. Gero eta hurbilago.

Balea gidariak, Haundik, badaki arriskua hurbil-hurbil dutela. Oraindik ez dute ametsetako itsaso eder hori **topatu**. Oraindik arriskuan daude.

Bat-batean Haundik zerbait ikusi du aurrean. Gelditu egin da. Formazioa ere bai. Norbait dago aurrean.

#

sekulako: izugarritzkoa, ikaragarria.

noizean behin: «de vez en cuando».

harro: oso mugimendu handiekin.

kresala: itsasoko hezetasuna, «salitre».

lanbro: «bruma».


behe-laino: «niebla baja».

heze: «húmedo».

peskizan: bila.

jo eta ke: etsitu gabe, «sin cejar en el empeño».

topatu: aurkitu.



Arrain asko, itsasoko biztanle asko agertu dira derrepentean aurre-aurrean: **marrazoak**, **izurdeak**, bakailaoak, **ezpatarrainak**, **arrain hegalariak**, orkak... Mota guztietako arrainak, oso desberdinak beren artean, batzuk benetakako arrainak direlako eta beste batzuk itsasoko **ugaztunak**.

#

marrazo/izurde/ezpatarrain/arrain hegalari: «tiburón/delfín/pez espada/pez volador.

ugaztun: «mamífero».

—Eta horiek zer nahi dute? —galdetu du Pottek.

—Ez dakit —esan du Haundik—. Baina galdetu egingo diegu. Ea, zer nahi duzue? Zer gertatzen zaizue?

—Zuen bila datoz, ezta? —esan diete baleei—. Itsaso osoan zabaldu da **berria** eta lagundu nahi dizuegu.

—Nola lagunduko diguzue? —galdetu du balea batek.

—Ez dakit nola lagundu ahal dugun. Baina abisua ere eman nahi dizuegu.

—Zer da, ba?

—Gizakien ontzia hurbil duzuela. Haizeari esker oso oso azkar mugitzen da. Gutxi falta zaio hona heltzeko. Kaioek hori esan digute. Denok lagundu nahi dizuegu.

—Eskerrik asko, lagunok! —esan du Haundik—. Baitaila oso hurbil dago. Begiratu denok ekialdera! Begiratu adi-adi! Ikusten duzue? Badakizue zer den puntutxo hori?

Inork ez du ezer esan, baina gehienek badakite zer den.

—Aizue! —oihukatu du Pottek—. Nik badakit zer den. Hori ikusita daukat. Gizakien baleontzia da, ezta Haundi?

—Bai, Pott. Baleontzia da. **Aurkitu egin gaituzte**. Ezin dugu ihes egin. **Aurre egin** behar diegu.

#

berri: notizia.

aurkitu egin gaituzte: «nos han encontrado».

aurre egin: «hacer frente».

BORROKA

Kapitainaren begiak gorri-gorri daude, **odoletan** bezala. Berak ondo daki baleen arrastoari jarraitzen, baleak aurkitzen eta baleak hiltzen.

—Gizonak! **Branka** aldera! Begiratu brankara! —oihukatu du, arpoi luze zorrotza eskuan—. Zer ikusten duzue aurrean? Ba al dakizue zer diren puntutxo horiek?

—Baleak! —**ahots** bakarra atera dute itsasgizon guztiek.

—Hori da, gizonak, hori da. Balea madarikatuak dira. Gaur izango dute beren azken eguna. Prestatu txalupak! —agindu die bere marinelei.

Eskifaia osoa jarri da **beharrean**, gizon guztiak bat dira. Denek egiten dute lan. Txalupak prestatzen ari dira, arpoiak, sokak eta **tresneria** guztia.

#

odoletan: odolez bustita.

branka: «proa».

ahots: boza.

beharrean: lanean, lan egiten.

tresneria: «aparejo».

3

Erantzun honako galderi:

- Nor da Haundi? Eta nolakoa da?
Haundi eta
- Zer gustatzen zaio Potti?
Jolas-.....
- Non bizi dira baleak?
Itsas-.....
- Nondik datoz gizakiak? Eta nora doaz?
Mendebalde-.....eta ekialde-.....
- Zerezkoak dira gizakien txalupak?
Egurrez-.....
- Zerez hiltzen dituzte arrantzaleek baleak?
Arpoi-.....

4

Eman arrazoiak:

- Zergatik zaude nekatuta?
.....
.....
- Zergatik eman diozu karpeta?
.....
.....
- Zergatik gustatzen zaizkizu bonboiak?
.....
.....
.....
- Zergatik joango zara Berlinera?
.....
.....
- Zergatik etortzen zara egunero eskolara autobusez?
.....
.....
.....
- Zergatik apurtu didate leihoko kristala?
.....
.....
.....